ASTEKO PORTADA HAUTATUA

ARGIAK 100 URTE

1980-AN ARGIA HARTU ZUTEN LANGILEAK

Eskerrak ordukoei

ZERUKO ARGIA

Illaroko Aldizkingi Edergarriduna

Aita Kaputxinoak Jezendua.

1 Urtea ..1919.. 1 Zenbakia

ILBELTEA

EUSKALDUN GUZTIOI AGUR

ARGAZKIAN: DONOSTIAKO VIRGEN DEL CARMEN KALEKO *ARGI*AREN EGOITZAN ETA HILABETE PARE BATEKO ETENAREN ONDOREN ATERATAKO AZALAREKIN ETA AFIXAREKIN: "AGUR T'ERDI, HEMEN GATOZ (BERRIZ)". MAHAIAN MAKURTUTA JON BARANDIARAN, HAREN ONDOAN JOSEBA ALVAREZ, ERDIAN JOXEMI ZUMALABE, ONDOAN JOSU LANDA, ONDOAN PELLO ZUBIRIA ETA ZUTIK IÑAKI URIA.

KOLDO IZAGIRRE

1919ko urtarrila

Komentu bat Lekarozen, kaputxino gazte multzoa euskaldun jendearen kantuak eta erran zaharrak biltzeko gogotan, herri musikari apaindura kultua emateko asmotan... Lehengaia eskura zeukaten baztandarren ahoan. Uztak ondorio zekarren komentua lantegi bilakatzea: gure kulturaren gotorleku txiki bat Lekarozen. Nafarroa eta bere harroa.

Zerua, elizen kupulen kupula unibertsala, euskarri teologikoa, gizakiaren azken esperantza eta munduosteko sagastia. Argia, gizakien gauzak biluzten dituen indarra. Zerua eta Argia, binomio zenitala gordintasuna barreiatzen munduko zokoetan egia eta gezurra bereizi nahian.

Argitan bizi, heriotza gainditu, herri gisa iraun, fedea kakoan eskegi, hizkera bat sortu... Historia konplexu eta aberats batek, gure kazetaritzaren ibili apal eta ausartak erdietsi du XXI. mendean *Zeruko Argia* aipaturik edo entzunik edo irakurririk Jainkoarekiko eta are Elizarekiko lotura egin ez dezagun, eta bai agerkari historiko batekin.

Munduko bazter guztietan zebiltzan gure misiolariak zirela Euskal Herriaren enbaxadoreak, esan zuen Telesforo Monzonek. Alabaina, mundukoa ez zen heldu zerutik, ilunpea ulertzeko ausartu genituen hitz zikinetarik baino. ●

MIREN OSA GALDONA

Zerikusi gutxi dute duela ehun urte sortu zen *Zeruko Argia*k eta egungo astekariak. Izena ez ezik, maiztasuna, aldizkariaren jabetza eta edukiek eraldaketa nabarmena izan dute. Prozesu horretan 1980ko hamarkada azpimarratzea funtsezko ariketa da. 1980an langileek hartu zuten ordura arte kaputxinoena zen agerkari erlijiosoaren gidaritza, eta gogor borrokatu behar izan zuten egun eskuartean dugun ARGIAren lehen zenbakiak lortzeko. Joxemi Zumalabek, Joxe Mari Ostolazak, Josu Landak, Pello Zubiriak, Iñaki Uriak eta Jon Barandiaranek paper berezia izan zuten enpresaren jabetza eredu berrian. Euskarazko prentsa normalizatua egitea zuten amets, euskaltzaletasuna, elkartasuna eta aurrezaletasuna –teknologia berriak aukera gisa hartu zituzten lehen langileek– oinarrian hartuta.

Egun kooperatiba haren ideia errealitate bilakatu dela esateko moduan bagara ere, bihurgunez betetako bidea izan da: zortzi milioi pezetako zorrari aurre egiteko, hastapeneko lantaldea kazetari ez ezik irakasle edo itzultzaile lanean ere aritu zen; baliabideak ere urriak ziren, nahiz eta arlo teknikoan zituzten ezagutzak askorako balio izan zien; kooperatibaren sortze urtean 24 zenbaki baino ez zituzten argitaratu, eta abar.

Lan gogorrak, ordea, uste baino azkarrago eman zituen emaitzak. Urte gutxiren bueltan zorra kitatu, lantaldea profesionalizatu eta ARGIAren sostenguan lagundu duten bi enpresa berri eratu zituzten: Apika Informatika eta Antza Inprimategia.

Egun atzera begiratu eta eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen. Hilabetekari erlijiosoaren lana beste batzuek betetzen baitute, baina nork ziurtatu diezaguke 1980ko hamarkadan eginiko lan guztiagatik ez balitz, gaur gaurkoz euskara hutseko astekari librea izango genuenik? ●